**IZAN ZAITE BETI** C.3
**Izan zaite beti, Jesus maitea,**
**Gure bihotzaren Jaun ta Jabea.**

1 - Ez da zerurako bertze biderik,
Jesusen bihotza bezalakorik.

2 - Bihotz hori dago beti zabalik,
Bekatorosentzat hetsi gaberik.

3 - Gure bihotz ahul, bihotz ttikiak,
Oro handi bitza zure graziak.

**SAKRAMENDU HANDI HUNI**
**Sakramendu handi huni ahuspez gauzkiola.**
**Gauza saindu guzieri hau nagusi dadila.**
**Sinesteak argi beza gure begi ahula.**

**Jainko Aita Semeeri kantu-ta bozkario.**
**Heier agur, ospe, indar, esker-ta amodio ;**
**Eta bien Gogoari orobat laudorio. A-men.**

**ESKERRAK EMAN** X.5
**Eskerrak eman, menderen mendetan**
**Eskerrak eman Jainko Jaunari.**
**Eskerrak eman Jaunari, eskerrak eman,**
**Eskerrak eman Jainko Jaunari.**
**Eskerrak eman Jaunari,**
**Eskerrak eman Jaunari.**
**Eskerrak eman Jaunari, eskerrak eman.**
**Eskerrak eman Jaunari, eskerrak eman,**
**Eskerrak eman Jainko Jaunari.**



San Iñazio Loiolakoa
1491-1556



**AGUR AINGERUEN** V.21
1 - Agur Aingeruen
eta zeru lurren
Erregina puxanta.
**Ederra zare, Maria,**
**Histen duzu iguzkia,**
**Zein zaren distiranta ! (bis)**

2 - Graziaren Ama,
Ama guziz ona,
Urrikalmendutsua.
**Zure miserikordia**
**Zein den espantagarria,**
**Oi zer ihes lekua ! (bis)**

4 - Penatuak diren
Haur dohakabeen
Kontsolazionea !
**Zu zare zu, oi Maria,**
**Bekatoreen bizia,**
**Loriako atea. (bis)**

*Ibarreko beila :*
*agorrilaren 31an*

*Orriako beila :*
*buruilaren 7an*

*Elizbarrutiko beila Lurden :*
*buruilaren 18an*

**LOIOLA 2016-VII-14**
**EUSKALDUNEN BEILA**

# BEZPERAK

✠ Entzun, Jainkoa, otoi ! entzun !
**Zatozkit, Jauna, laster lagun !**
**Ospe Aitari Semeari**
**bai Izpiritu Sainduari !**
**Lehen bezala orai ere,**
**hala dadila betiere ! Alleluia !**

**URTE SAINDUAREN HIMNOA**
**Misericordes sicut Pater,**
**misericordes sicut Pater ! (bis)**

1/ Eskerrak Aitari, ona baita, **in aeternum misericordia ejus.**
Bere zuhurtzian egin du mundua, **in aeternum misericordia ejus.**
Mendez mende Herriaren aintzindari, **in aeternum misericordia ejus.**
Bere haurren barkatzaile ta babesle, **in aeternum misericordia ejus.**

2/ Eskerrak Semeari, Herrien argiari, **in aeternum misericordia ejus.**
Maitatu gaitu, gizon bihotzez maitatu, **in aeternum misericordia ejus.**
Hartarik den dena, harena den dena, **in aeternum misericordia ejus.**
Gose ta egarri daudeneri, zabal bihotza, **in aeternum misericordia ejus.**

3/ Izpirituaren zazpi dohainak eska ditzagun, **in aeternum misericordia ejus.**
Ongi guzien sorburu, sosegu eztiena, **in aeternum misericordia ejus.**
Harek sustaturik, heda gozotasuna, **in aeternum misericordia ejus.**
Maitasuna betiere esperantza jarraikian, **in aeternum misericordia ejus.**

4/ Bakezko Jainkoari dugun eska bakea, **in aeternum misericordia ejus.**
Berri onaren beha dago lur guzia, **in aeternum misericordia ejus.**
Xumeen baitan bozkario ta barkamen, **in aeternum misericordia ejus.**
Zeru-lurrak oraidanik mende berri, **in aeternum misericordia ejus.**

**Urrikalkorra eta bihozbera da Jauna,**
**berant-hasarre eta ongi-nahi handikoa.**
**Ona da Jauna guzientzat,**
**samurra berak egin guzientzat.**
**145. Salmotik.**

**102. SALMOA**
**Jainkoak badu bihotz on eta urrikalmendu.**

Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;
Nere barneko guziek haren izenari.
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;
Ez nehoiz ahantz zoin usu zaitzun urrikari.

Harek barkatzen, noiz baitzare zu makur ari,
Indar emaiten, ahul bazare ala eri.
Libratzen zaitu, kasik baitzare hil erori ;
Emaiten dautzu amodioa minen sari.

Emana dio berak Moisi bere berri,
Izraelentzat egin du ainitz miragarri.
Ona da Jauna eta guzien urrikari,
Ez hasarrekor bainan bihotzen altxagarri.

Nola baitio aitak behatzen semeari,
Hala da Jauna Jainkozaleen urrikari.
Badaki berak hezurrez hezur gure berri :
Ezagutzen du gu jitez garen erraúts hori.

Gizon biziak uda-belarra zoin iduri,
Pentze loreen pareko lore sortzen hari.
Haizea heldu eta lorea histen ari :
Zagon tokia nihori nihun ez ageri.

Jainkozalentzat Jainko bihotza ezin neurri :
Betieretik betierean miresgarri.
On dagiote heien semeen semeeri,
Balinbazaizko josiak eta zuzen ari.

Eskerrak eman, zeru-armadek, Jainkoari,
Haren nahien egile eta zerbitzari.
Eskerrak, mundu zabalekoek, Jainkoari,
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari.

Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.
Lehen bezala Heieri ospe orai ere :
Hala dadila menderen mende betiere.

**Jainkoak badu bihotz on eta urrikalmendu.**



**109. SALMOA**
**Jainkoak dio Kristori erran :**
**« Jaun eta Jainko, jar eskuinean ».**

Nere Jaunari Jaunak dio : “ Jar eskuinean,
Nik eman arte Zuri etsaiak zango pean ”.
Jaunak eginen Zion-dik Zu Jaun mundu huntan :
Etsai ditutzun jenden erdian Zu Jaun izan.

Jaun zare sortzez piztu baitzare zeruetan :
Argitu-aintzin sortua zaitut Nere baitan ”.
Zin egina du Jainkoak eta behingoan :
“ Apez zare Zu Melkizedek-en araberan ”.

Bidean Jauna badabilkizu eskuinean,
Erregeak joz hasarrearen egunean.
Erresumetan emanen ditu hilak metan,
Buruak ditu xehakaturen bazterretan.

Edaten baitu bide ondoko ur-errekan :
Horra zergatik beti burua gora daukan.
Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

Lehen bezala Heieri ospe orai ere :
Hala dadila menderen mende betiere.

**Jainkoak dio Kristori erran :**
**« Jaun eta Jainko, jar eskuinean ».**



**111. SALMOA**
**Jaun zerukoa maite duena**
**Legean doa xuxen xuxena.**

Bai dohatsua Jaunaren beldur den gizona,
Haren nahian goza gozatuz dabilana.
Semeak azkar izanen ditu mundu huntan ;
Zuzenen haurrak Jainko Jaunaren eskuetan.

Haren etxean bada ontasun, gozotasun,
Haren barneko argia deusek ezin ilun.
Ilunbetan du zuzenen argi dirdiratzen,
Hain baita ezti, bihotz oneko, eta zuzen.

Denentzat badu bai ele ona, bai laguntza,
Dauzkanak oro zuzenkienik badabiltza.
Ezta sekulan lerratu eta eroriko ;
Gizon zuzena aipatua da sekulako.

Ez berri beltzen beldurrik nehoiz pizten ari ;
Haren bihotza osoki dago Jainkoari.
Bihotza dauka bakean eta beldur gabe,
Bere etsaiak ahalgetuak ikus arte.

Behartsuentzat badu laguntza, badu argi ;
Kopeta gora agertuko da lorioski.
Gizon makurra ihartuko da herra minez ;
Gizon makurren lehia beltzak indarrik ez.

Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.
Lehen bezala Heieri ospe orai ere :
Hala dadila menderen mende betiere.

**Jaun zerukoa maite duena**
**Legean doa xuxen xuxena.**

**ZOR BEZALA, ZURI, JAUNA** P 28 Apokalipsia 4-5
1- Zor bezala, zuri, Jauna, aintza eta indarra.
Zuk ditutzu moldatuak bai zerua, bai lurra.
Zure nahiz da mundua hoin izaitez ederra.
**Jainkoaren Bildotsari aintza eta indarra !**

2- Nihork ez du Liburua zabaltzeko ahala.
Hara bai Zuk hartu eta zabalduko duzula
Hilik eman duzulakotz gizonentzat odola.
**Jainkoaren Bildotsari aintza eta indarra !**

3- Herri, leinu, mintzai, jende gaitutzu gu bat egin,
Denetarik erreinu bat Jainkoari sor dadin.
Erregetu behar dugu lur guzian zurekin.
**Jainkoaren Bildotsari aintza eta indarra !**

4- Hil izan den Bildotsari sekulako eskerrak.
Ontasunak, jauntasunak zaizko eman beharrak.
Hari agur, Hari ospe, bai zeruak, bai lurrak.
**Jainkoaren Bildotsari aintza eta indarra !**



**KANTUZ ARI ZAIT NERE ARIMA** *(Magnificat)*
Kantuz ari zait nere arima Jainkoari
Haren goresle kantuz ari.
**Haren loriaz bozkariotan dut gogoa :**
**Salbatzaile dut nik Jainkoa.**

Naizen neskato apal hau baitu hautatua,
Mendeek neri : “Dohatsua” !
**Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua !**
**Haren izena zoin saindua !**

Urrikalmenduz betea dago mendez-mende,
Sineste duten jenden alde.
**Bere besoan duen indarraz Harek ditu**
**Bihotz hantuak barreiatu.**

Beren alkitik handi-mandiak kendu ditu,
Apalak aldiz goraltxatu.
**Gose zaudenak nasaiki ditu gozarazi.**
**Aseak aldiz hutsik utzi.**

Behatu dio Izrael bere jendeari.
Lehen bezala urrikari.
**Erran baitzuen gintuela gu lagunduko**
**Abrahamtarrak sekulako.**

Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari.
**Lehen bezala Heieri ospe orai ere !**
**Hala dadila betiere !**

**Jauna orroit zaite**
**zoin gaitutzun maite !**

**JAUNAREN OTOITZA**
**Gure Aita zeruetan zirena**
**Saindu izan bedi zure izena**
**Etor bedi zure erreinua**
**Egin bedi zure nahia**
**zeruan bezala lurrean ere**
**Emaguzu gaur egun huntako ogia**
**Barkatu gure zorrak**
**Guk ere gure zorduner**
**Barkatzen diegunaz geroz**
**Eta ez gu tentaldirat ereman**
**Bainan atera gaitzazu gaitzetik.**